



**Emakume eta gizonen
berdintasunerako III. plana**

2026-2029



ORIOKONDALA

kala*la*

Aurkibidea

Sarrera (3 or.)

- 1.1. Aurrekariak
- 1.2. Metodologia eta parte-hartzaileak

Berdintasun planaren egitura (8 or.)

- 2.1. Testuinguru juridikoa
- 2.2. Berdintasun planaren antolaketa
- 2.3. Lan ildo bakoitzeko helburuak
- 2.4. Lan ildo bakoitzeko ekintzak
- 2.5. Lan ildo bakoitzeko helburu eta ekintza kopuruak, guztira

Kudeaketa-egiturak (23 or.)

- 3.1. Sailen arteko egitura politikoa
- 3.2. Sailen arteko egitura teknikoa edo Berdintasun Batzordea
- 3.3. Berdintasunerako Talde motorea
- 3.4. Indarkeria matxistaren aurka lanean dabiltzan erakunde eta udal sailen arteko koordinazio organoa
- 3.5. Emakumeen Mahaia
- 3.6. Hezkidetza Mahaia
- 3.7. Zaintza Mahaia

Jarraipen-sistema (26 or.)

- 4.1. Jarraipenerako tresnak
- 4.2. Jarraipen-bilerak
- 4.3. Urteko plan operatiboa
- 4.4. Jarraipen-egutegia

*Kalaka kooperatiba elkarte txikiak
gidatutako prozesua,
Emakunde-Emakumearen euskal
erakundearen babesarekin.*



Savviera

Plan honek Orioko Udalak **2026-2029 aldirako** emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan jarduteko estrategia eta proposamena jasotzen ditu. Orioko Udalak konpromezu eta gogoz darrai berdintasun-politikak diseinatu eta ezarri, bide berriak zabalduz, datozen lerroetan azalduko dugun moduan.

Planaren ekintzak diseinatu, gauzatu, jarraitu eta ebaluatzean, Orioko emakumeen aniztasuna eta diskriminazio anizkoitzeko egoerak hartuko dira kontuan. Horretarako, egokia eta posible denean, sexua ez ezik, adina, jatorria, desgaitasuna, egoera sozioekonomikoa, familia-egoera, sexu-orientazioa eta genero-identitatea, mendekotasun-edo zaintza-egoera eta bestelako desberdintasun-ardatz esanguratsuak ere aztertuko dira.

II. Berdintasun plana urtez urte landu da, jarraipen xehea egin zaio eta bai alor teknikoa eta baita politikoa ere, gaiarekin konprometituta azaldu dira. Hori horrela, III. Plan honek ere bide bera jarraitzeko lanean ari dira.

Plan hau egoera berri baten baitan osatu da. Azken urtetan ez bezala, jadanik badago **Berdintasun eta Hezkuntza saila** eta horrek berdintasunarekiko egoera guztiz aldatzen du, Udalaren konpromisoa handituz gaiarekiko. Orain bai, Udalean bertan badago erreferente bat lan honetarako eta horrek zeharkakotasunean egin nahi den lana burutzea erraztuko du, besteak beste.

Horrekin lotuta, **“Bizitza askeak plazer”** proiektua landu da plan hau egituratzen ari zen bitartean.

Orioko Udalak “Bizitza askeak plazer” proiektuarekin arlo askotarikoetan garatuko dituen esku-hartzei (indarkerien prebentzioan eta ongizatearen sustapenean) ortzimuga komunikatibo, sinboliko eta praktikoa eskaintzen die, norabide berdinean arraun egin dezan herriak.

Harreman osasuntsu eta sanoetan oinarritutako herri-proiektua garatzeko proiektua da honakoa, elkarbizitza ona sustatzeko herri-ardura eta herri-konpromisoa lortzeko estrategia bateratua, eta bide horretan egingo den kontzientziakzio zein esku-hartzeen marko berri bat izango da.

1.1. Aurrekariak:

Orioko Udalean aurreko legeegintzaldietan egin dira berdintasunari begirako hainbat diagnostiko eta ekintza plan. Hauexek dira ekintza plan hau burutzeko aurretik emandako urratsak.

1 **2008 urtean Orioko Berdintasun diagnosia egin zen.** Emakundek diruz lagundua eta Equala aholkularitzak egin.

3 2012 urtean **2013-2016 urteetarako Orioko emakume eta gizonen berdintasunerako I. plana** egin zen. Murgibe aholkularitzak egin.

5 **2019 urtean Orioko emakumeon beharren diagnosia egin zen.** Pertzetik talde feministak egin.

7 **2021 urtean Orioko emakume eta gizonen arteko berdintasunerako II. diagnosia** egin zen, Kalakaren aholkularitza teknikoarekin.

9 **2022 urtean Orioko emakume eta gizonen arteko berdintasunerako II. planaren** ezarpena abiatu eta urteko ebaluazioa egin da, Kalakaren aholkularitza teknikoarekin.

11 **2024 urtean Orioko emakume eta gizonen arteko berdintasunerako II. planaren** ezarpena abiatu eta urteko ebaluazioa egin da, Kalakaren aholkularitza teknikoarekin.

2 Diagnosian ahulgune eta hutsune nabarmenak agertu baziren ere, **hurrengo 4 urteetan ez zen berdintasun politikarik sustatu** hauei aurre egiteko.

4 Diagnosia egin eta 4 urtera ekintza plana diseinatu bazen ere, **ez zen bertako helbururik eta politikarik abiatu.**

6 Bigarren diagnosi honetan lanketa berezia egin zen herriko emakume talde anitzekin elkartuz eta gehiengoaren beharrak identifikatzen. Hau horrela, diagnosiaren ondoren, **Emakumeen Ahalduztze eskola sortzeko proiektua** aurkeztu zuten, eta udalak onartu zuenez, finkatutako helburuak betetzen ari da proiektu hau.

8 **2022 urtean Orioko emakume eta gizonen arteko berdintasunerako II. plana** osatu da, Kalakaren aholkularitza teknikoarekin.

10 **2023 urtean Orioko emakume eta gizonen arteko berdintasunerako II. planaren** ezarpena abiatu eta urteko ebaluazioa egin da, Kalakaren aholkularitza teknikoarekin.

12 **2025 urtean Orioko emakume eta gizonen arteko berdintasunerako II. planaren** ezarpena abiatu eta urteko ebaluazioa eta 2022-2025eko ebaluazio orokorra egin da, Kalakaren aholkularitza teknikoarekin.

1.2. Metodologia eta parte-hartzaileak

2025eko diagnostikoa oinarri hartuta, 2026ko urtarritetik apirilera bitartean, ekintza plana osatzeko prozesua garatu dugu.

Prozesuaren faseak:



Parte-hartzaileak:

Talde sustatzailea honako hauek osatu dute:

- Euskara, hezkuntza, hirigintza eta ingurumen zinegotzia
- Berdintasun eta Hezkuntza saileko teknikaria
- Gizarte saileko teknikari bat
- Udaltzainburua
- Saregileko bi kideak
- Merkataritza, ostalaritza eta turismo saileko teknikaria
- Kirola eta gazteria saileko teknikaria
- Euskara, Kultura eta festak saileko teknikariak
- Hirigintza saileko teknikaria
- Administrazio orokorreko teknikaria

Parte-hartzaileak	Emakumeak	Gizonak	Guztira
2022	8	4	12
2023	8	4	12
2024	8	5	13
2025	8	4	12
2026	8	4	12

Erronka nagusiak:

2026-2029 aldirako identifikatutako 6 erronka nagusiak honakoak dira:

- 1. Zeharlerrotasunerantz urratsak ematea:**
Udaleko langile eta ordezkari politikoen gaitasuna handitzea, beren jarduera, programa eta prozeduretan genero-ikuspegia modu sistematikoan txertatzeko.
- 2. Egituren egonkortzea eta koordinazioa sendotzea:** Zaintza Mahaia, Hezkidetza Mahaia eta Emakume Mahaia.
- 3. Kirolean ongizatea sustatzeko eraldaketa-prozesuak sustatzea kirol elkarteetan,** Orio Arraun Klubetik hasi eta besteetarantz zabalduz.
- 4. Orioko emakumeen ahalduztze pertsonal, kolektibo eta soziopolitikorako espazioa den Saregile Emakumeon* Etxea zabaltzea eta egonkortzea.**
- 5. Bizitza askeak plazer estrategiaren garapenean sakontzea,** besteak beste: Berdintasunaren inguruan herritarrak eta herriko eragileak sentsibilizatzea, indarkerien aurkako prebentzioa, arreta hobetzea eta erreparazio komunitariorako zein memoria eraikitzekeo estrategien garapena.
- 6. Orio herri zaintzailerantz urratsak ematen jarraitzea,** pertsonetan oinarritutako zaintza ekosistema berri baterantzko trantsizioa egikaritzeko baldintzak sortuz.

Berdasarkan
planaren
egitura

2.1. Testuinguru juridikoa:

Segidan aurkezten ditugu legez zein funtzio eta obligazio dituzten tokiko administrazio erakundeek:

EAE

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA

- Azpiegiturak, programak eta prozedurak genero ikuspegiarekin egokitu eta sortzea
- Ekintza positiboko neurriak betearaztea toki-eremuan
- Programak egitea (Jaurlaritzaren eta GFaren lan lerroen barruan)
- Estatistikak egokitu eta eguneratzea, sexu arrazoiengatik ezberdintasunak atzemateko
- Emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea
- Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko ekintzen sentsibilizazio jarduerak egitea
- Jarraipena egitea toki-araudiari eta haren aplikazioari, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera den.
- Herritarrei informazioa ematea berdintasunerako baliabideen inguruan
- Diskriminazio anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarritzko gizarte-eskubideetarako sarbidea izan dezaten programak sortzea eta zerbitzuak ematea
- Herritarrei bizitza pertsonala, familia eta lana erantzunkidetasunez kontziliatzen laguntzeko baliabideak eta zerbitzuak ezartzea
- Erakunde publiko eta pribatuekin harremanak egitea berdintasuna lortzeko helburuetan laguntzen badute
- Sexu arrazoiengatik ematen diren bereizkeria egoerak antzematea eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak hartzea

Lege honetan oinarrituta, Emakunde legegintzaldi bakoitzean EAEko Berdintasun Plana osatzen du. Zeinak, tokiko eta foru administrazioentzako lan lerro amankomunak ezartzen dituen, elkarrekin noranzko berean lanean aritzea laguntzeko helburuarekin.

EAEko Emakume eta gizonezkoen VIII. Berdintasun Plana, 2030 ESTRATEGIA
(Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundea)

- Gobernu ona
- Emakumeen ahalduntzea
- Gizarte-antolaketa bidezkoa, berdintasunezkoa eta jasangarria
- Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzak

ESTATUAN

Tokiko oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea (2003-12-21ean eguneratua)

- 28. art.: Udalek jarduera osagarriak ere egin ditzakete, bereziki, gai hauen ingurukoak badira: hezkuntza, kultura, emakumeen sustapena, etxebizitzak, osasuna eta ingurumenaren babesa.

Genero indarkeriaren kontrako 1/2004 Lege Integrala

- Genero indarkeriari aurre egiteko estrategia juridikoak eta gizarte mailako neurriak ezartzen ditu, prebentzi-oan landuak izateko eta indarkeria hau jasaten duten biktimen babes integralerako.

Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoa

- Ekintza positiboaren, Ordezkaritza orekatuaren eta Zeharkakotasunaren printzipioetan oinarritzen da, eta tratu eta aukera-berdintasuna sustatzeko arauak, berdintasun planak egiteko eta berdintasun politikak gauzatzeko obligazioa eta jazarpen sexista ala sexu-jazarpenen prebentziorako protokoloak ala neurriak ezartzeko obligazioa azpimarratzen dira.

EUROPAN

Emakumeen aurkako bereizkeria era guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioa (NBERen Biltzar Nagusia 1979; Espainiar Estatua 1984)

- 2. art.: Printzipio hori legeen bidez edo beste bitarteko egoki batzuk erabiliz benetan betearazten dela bermatzea.

1999ko maiatzaren 1ean Amsterdamgo Ituna (Europar Batasuna)

- 3.2. art.: Batasuneko eta kide diren estatuetakoko politika eta ekintza guztietan integratu behar da emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatu eta horien berdintasuna sustatzeko helburua.

Europako Gutuna Emakumeek eta gizonek tokian tokiko bizimoduan izan behar duten berdintasunerako (2006)

- Berdintasuna oinarrizko eskubidea dela azpimarratuz, berau errealitate izan dadin tokiko administrazioetan berdintasun politikak eta neurriak hartzeko jarraibideak eskaintzen dira.

Istanbulgo Hitzarmena, (Espainiar Estatua 2014)

- Emakumeenganako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta borrokatzeari buruzko hitzarmena.

2.2. Berdintasun Planaren antolaketa:

Orioko Udaleko emakume eta gizonen berdintasunerako III. Plana, Emakunderen VIII. Berdintasun Planaren, 2030 ESTRATEGIAren (Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundea) helburu eta esku-hartze ardatzen baitan antolatuta dago.

Berdintasun Planaren antolaketa zehatz hori ongi ulertzeko, esku-hartze ardatzen aurkezpena egiten dugu segidan, eta 2026-2029rako aldi osorako ezarri diren lan-ildo bakoitzeko helburu nagusiak ere aurkezten ditugu datozen orrialdeetan.

HELBURUA:

GOBERNU ONA

- Kompromiso politikoa: araudia eta baliabideak
- Berdintasuna administrazio-jardueran
- Beste gobernantza-eredu baterantz

ESKU-HARTZE ARDATZAK:

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

- Autonomia ekonomikoa
- Emakumeen protagonismoa eta lidergo feministak
- Eskubide guztiak benetan baliatzea

GIZARTE-ANTOLAKETA BIDEZKOA, BERDINTASUNEZKOA ETA JASANGARRIA

- Demokrazia zaintzailea
- Berdintasuna erakundeen eta enpresen kulturen eta praktikan
- Berdintasuna Euskadiren susperraldian eta modernizazioan
- Hezkidetzak, gizonen inplikazioa eta berdintasunezko herritasuna

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

- Berdintasunerako prestakuntza, prebentzioa eta sentsibilizazioa.
- Detekzio goiztiarra, arreta integrala, deribazioa eta erreparazioa
- Erakundeen arteko koordinazioa
- Jarraipena eta ebaluazioa.

2.3. Lan ildo bakoitzeko helburuak:

HELBURUA:

GOBERNU ONA	
G1	Berdintasun-politikak garatzeko berariazko aurrekontuak esleitzea eta handitzea
G2	Emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana exekutatzea eta jarraipena egitea
G3	Berdintasunerako organoak sortzea, indartzea eta/edo koordinatzea
G4	Udaleko langile eta ordezkari politikoen gaitasuna handitzea, beren jarduera, programa eta prozeduretan genero-ikuspegia modu sistematikoan txertatzeko
G5	Genero-zeharlerrotasuna udaleko sail, maila eta fase guztietan txertatzeko prozedurak sustatzeko baldintzak sortzea
G6	Sektorekako azterketak egitea genero ikuspegitik
G7	Udalak berdintasunarekin hartutako konpromisoa herrian ikusaraztea

ESKU-HARTZE ARDATZAK:

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA	
A1	Herri mailan emakumeek eta feminismoak duten garrantzia azpimarratzea
A2	Oriko emakumeen ahalduntze pertsonal, kolektibo eta soziopolitikorako espazioa den Saregile Emakumeon* Etxea zabaltzea eta egonkortzea
A3	Oriko emakumeen memoria historikoa berreskuratzeko eta argitara emateko pausoak ematea

GIZARTE-ANTOLAKETA BIDEZKOA, BERDINTASUNEZKOA ETA JASANGARRIA	
B1	Berdintasunaren inguruan herritarrak eta herriko eragileak sentsibilizatzea
B2	Orion ikuspegi hezikidetzale eta pedagogia feministatik jarduteko urratsak ematea hezkuntza arautuan eta ez arautuan
B3	Oriko gizonen inplikazioa handitzea zaintza-lanetan, erantzunkidetasunean eta berdintasunezko harremanen eraikuntzan
B4	Emakumeen autonomia ekonomikoa areagotzea eta horretarako estrategia askotarikoak garatzea
B5	Pertsonetan oinarritutako zaintza ekosistema berri baterantzko trantsizioa egikaritzeko baldintzak sortzea, Orio herri zaintzailea izan dadin

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK	
I1	Bizitza askeak plazer estrategiaren garapenean urratsak ematea; elkarren zaintzan eta errespetuan oinarritutako den herri eraikitze, indarkeria guztien aurka eginez
I2	Hirigintza inklusiboan sakontzea, herritar guztientzat herri bizigarri bat lortzeko

2.4. Lan ildo bakoitzeko ekintzak:

GOBERNU ONA											
G1	Berdintasun-politikak garatzeko berariazko aurrekontuak esleitzea eta handitzea										
	EKINTZA	ARDURADUNA	AURREKONTUA	ADIERAZLEAK	2026				2027	2028	2029
G1.1.	Berdintasun-politikak garatzeko berariazko aurrekontua esleitu.	Kontu-hartzailea	177.668 euro	Aurrekontua esleitu: bai/ez							
G1.2.	Berdintasun-politikak garatzeko aurrekontua handitu.	Kontu-hartzailea		Urtero aurrekontua zenbatean handitzen den (%)							
G2	Emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana exekutatzea eta jarraipena egitea										
G2.1.	Egoera berria dela eta, Talde motorearen funtzionamendua birformulatu.	Berdintasun Teknikaria		Talde motoreak egindako bilera- kopurua:							
G2.2.	Berdintasun Batzordea elkartzea planaren jarraipena edota planaren berri emateko, berdintasun teknikariak hala eskatzen duenetan.	Berdintasun Teknikaria		Berdintasun Batzordeak egindako bilera-kopurua:							
G2.3.	Sailen arteko mahai politiko-teknikoaren bileretakoren batean, gutxienez, urteko berdintasun-ekintzak eta aurrekontuak onartzeko eta egindakoaren jarraipenaren berri izateko aprobetxatzea.	Berdintasun Teknikaria		Mahai politiko-teknikoak egindako bilera- kopurua:							
G2.4.	Urteko jarraipeneko memoria-txostenak landu.	Berdintasun Teknikaria		Urteko jarraipeneko memoria-txostena							
G2.5.	Instituzioen arteko koordinaziorako guneetan parte hartu.	Berdintasun Teknikaria		Parte hartzearen hasiera data Bilera kopurua:							
G2.6.	Berdintasunerako barne plana egin.	Berdintasun Teknikaria		Barne plana egin da: bai/ez							

G3	Berdintasunerako organoak sortzea, indartzea eta/edo koordinatzea										
	EKINTZA	ARDURADUNA	AURREKONTUA	ADIERAZLEAK	2026				2027	2028	2029
G3.1.	Zeharlerrotasunaren lantaldea koordinatu.	Berdintasun Teknikaria / Aholkulari juridikoa		Koordinazio bilera kopurua							
G3.2.	Indarkeria matxistaren aurka lanean dabiltzan erakunde eta udal sailen (hezkuntza, osasuna, polizia, gizarte arloa) arteko koordinazio organoa koordinatzen jarraitu.	Berdintasun Teknikaria / Gizarte zerbitzuetako arduraduna		Erakunde eta sail bakoitzeko parte hartzaileak, sexuaren arabera banatuta. Egindako bilera kopurua.							
G3.3.	Emakumeen Mahaia koordinatu.	Saregile / Berdintasun Teknikaria		Emakumeen Mahaiaren parte hartzaileen kopurua eta bilera kopurua:							
G3.4.	Hezkidetza Mahaia koordinatu.	Berdintasun Teknikaria		Hezkidetza Mahaiaren parte hartzaileak eragile eta sexuaren arabera banatuta eta bilera kopurua.							
G3.5.	Zaintza mahaia (talde eragile iraunkorra) egonkortu.	Gizarte zerbitzuak / Berdintasun Teknikaria / Aholkularitza		Zaintza mahaiko parte hartzaileak sexuaren arabera banatuta eta egindako bilera kopurua.							
G3.6.	Orioko zaintza mahai publiko komunitarioa osatu.	Berdintasun teknikaria		Zaintza mahai publiko komunitarioa osatu da? Bai/Ez. Zaintza mahai publiko komunitarioko parte hartzaile kopurua sexuaren arabera banatuta eta bilera kopurua.							
G4	Udaleko langile eta ordezkari politikoen gaitasuna handitzea, beren jarduera, programa eta prozeduretan genero-ikuspedia modu sistematikoan txertatzeko										
G4.1.	Udal langileek berdintasun gaietan sakontzeko formakuntza plana sortu eta garatu.	Berdintasun Teknikaria		Formakuntza planaren txostena egin da? Bai/Ez Urtero eskainitako gaia eta saio kopurua Urteroko parte hartzaileak sexuaren arabera banatuta							
G4.2.	Udal ordezkari politikoak berdintasunean sentsibilizatu eta formatu.	Berdintasun Teknikaria		Parte hartzaileak sexuaren arabera banatuta Eskainitako saio kopurua							

G5	Genero-zeharlerrotasuna udaleko sail, maila eta fase guztietan txertatzeko prozedurak sustatzeko baldintzak sortzea										
	EKINTZA	ARDURADUNA	AURREKONTUA	ADIERAZLEAK	2026				2027	2028	2029
G5.1.	Aurrekontu batean genero-ikuspegia txertatu.	Berdintasun Saila / Aholkulari juridikoa		Genero ikuspegia txertatu den aurrekontu kopurua							
G5.2.	Datuen bilketa era segregatuan egin, faltan diren sail/dokumentu/ataletan.	Berdintasun Saila / Aholkulari juridikoa		Gehitu dira genero-adierazleak? Bai/Ez Genero-adierazleak gehitu diren euskarri kopurua Saioa egin da? Bai/Ez. Parte hartzaile kopurua sexuaren arabera bereizita							
G5.3.	Kontziliazio neurrien inguruan, urtero, langile guztiak informatu.	Pertsonal Arduraduna		Langileak informatuak izan diren data eta kanala							
G5.4.	Dirulaguntza, kontratazio eta hitzarmenetan berdintasun klausulak txertatu eta jarraipena egiteko baliabide eta tresnak sortu.	Aholkulari jurdikoa / Berdintasun Teknikaria		Berdintasun klausulak non txertatu dira? Jarraipena egiteko sortutako tresna eta baliabide kopurua.							
G6	Sektorekako azterketak egitea genero ikuspegitik										
G6.1.	CRO Orio Arraunketa Elkarteko arraunlarien ongizatea sustatzeko proiektuaren garapena egin eta beronen jarraipena egituratu.	Berdintasun Teknikaria	9.075,00	Azterketa abiatu da: Bai/Ez Azterketa amaitu da: Bai/Ez Jarraipena bermatzeko dokumentua Jarraipeneko lansaio edota bilera kopurua/Bertaratutako pertsonak, generoaren arabera bereizita							
G6.2.	Herriko kultur saileko agendaren jarraipena genero ikuspegiaren arabera egiten dela bermatu.	Kultur Saila		Dokumentua eguneratuta dago? Bai/Ez							
G6.3.	Zaintzaren inguruko planaren jarraipena egin.	Gizarte zerbitzuak / Berdintasun teknikaria		Planaren jarraipena egin da? Bai/Ez							
G6.4.	Hezkidetza plana exekutatzen dela bermatu.	Berdintasun Teknikaria	14.400,00	Plana exekutatu da? Bai/Ez							
G6.5.	Gazteriarekin lotutako azterketa egin.	Gazteria teknikaria		Azkerketa egin da? Bai/Ez							
G6.6.	Adikzioen prebentzio plana exekutatu.	Gizarte Zerbitzuak		Ekintza planeko helburuak bete dira: Bai/Ez.							

G7	Udalak berdintasunarekin hartutako konpromisoa herrian ikusaraztea										
	EKINTZA	ARDURADUNA	AURREKONTUA	ADIERAZLEAK	2026				2027	2028	2029
G7.1.	Martxoak 8, maiatzak 17, ekainak 28 eta azaroaren 25ean berdintasunaren aldeko adierazpen publikoak egiten jarraitu.	Komunikazio teknikaria		Egindako adierazpen publiko kopurua Adierazpen publikoa egindako data							
G7.2.	Udalak egiten dituen agerraldietan emakume eta gizonen ordezkartza orekatua bermatzen jarraitu.	Komunikazio teknikaria		Egindako agerraldi kopurua eta bakoitzean izandako emakume eta gizonen ordezkartza kopurua							
G7.3	Berdintasun Planaren herritarrentzako bertsio labur, bisual, irisgarri eta elebiduna egitea eta urtero planaren gauzatze-mailari buruzko informazioa argitaratzea.	Berdintasun teknikaria/ Komunikazio teknikaria		Eragin txostenaren laburpena. Zabaldu den bertsioa bera.							

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

A1	Herri mailan emakumeek eta feminismoak duten garrantzia azpimarratzea											
EKINTZA		ARDURADUNA	AURREKONTUA	ADIERAZLEAK	2026				2027	2028	2029	
A1.1.	Izenik ez duten plazen izendegirako prozesua landu emakumeen mahaiarekin.	Berdintasun Teknikaria / Hirigintzako teknikariak		Prozesua burutu da? Bai/Ez. Prozesuak emandako emaitzen ondorioak aztertu dira? Bai/Ez Ondorioak eta proposamenak biltzen dituen dokumentua.								
A1.2.	Liburutegiaren erabilpena, antolatzen diren jarduerak, zerbitzuak eta eskaintza aztertzea genero ikuspegitik, aldaketarako neurri zehatzak proposatuz azterketan bertan.	Liburutegiko teknikaria / Berdintasun Teknikaria		Azterketa burutu da? Bai/Ez Neurri zehatzak proposatu dira? Bai/Ez Aldaketak eman dira? Bai/Ez"								
A1.3.	Turismoaren inguruan antolatzen diren jarduerak aztertzea genero ikuspegitik, aldaketak egin daitezen proposamenak bildu.	Turismo teknikaria / Berdintasun Teknikaria		Jardueren zerrenda Genero ikuspegia nola txertatzen den bakoitzean, edo ez.								
A2	Oriko emakumeen ahalduntze pertsonal, kolektibo eta soziopolitikorako espazioa den Saregile Emakumeon* Etxea zabaltzea eta egonkortzea											
A2.1.	Saregileko erabiltzaileen eta bertan eskaintzen diren formakuntza eta zerbitzuetan parte hartzen dutenen inguruko informazioa jaso eta baita hauen balorazioak ere; tarteka errebisatu osatu edo egokitu behar den aztertzeko.	Saregile		Informazioa jasotzen da: bai/ez Balorazioak jasotzen dira: bai/ez Segimendua egiten zaie: bai/ez Egokitzapenik egin da: bai/ez								
A2.2.	Saregileko erabileraren inguruko zein datu jaso nahi ditugun eta nola egingo dugun adostu eta horiek biltzeko tresna erabilterraza sortu.	Saregile		Jaso nahi diren datuak identifikatu daude: bai/ez Tresna sortu da: bai/ez								
A2.3.	Saregileko erabiltzaileen eta bertan eskaintzen diren formakuntza eta zerbitzuen inguruko datuak modu sistematikoan bildu eta urteroko memorian txertatu.	Saregile		Datuak sistematizatu dira: bai/ez Memorian txertatu dira: bai/ez								
A2.4.	Saregileko memoria herritarren batzordean aurkeztu ostean, online zabaldu, herritar ororen eskura jarri.	Saregile		Urteko memoria eskuragarri dagoen euskarri edota espazio kopurua.								
A2.5.	Saregileren bueltan dauden elkargunek eta talde autogestionatuek bere jardunaren balorazioa egin eta ateratako ondorioen arabera horien dinamika egokitu.	Saregile		Lantaldeek jardueraren balorazioa egin dute: bai/ez Dinamika egokitu da: bai/ez								

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

A2	Oriko emakumeen ahalduntze pertsonal, kolektibo eta soziopolitikorako espazioa den Saregile Emakumeon* Etxea zabalitzea eta egonkortzea											
EKINTZA		ARDURADUNA	AURREKONTUA	ADIERAZLEAK	2026			2027		2028	2029	
A2.6.	Datuen sistematizazioaren bidez zein profiletako emakumeengana iristen garen aztertu eta gutxien ordezkatzuta dauden profiletako emakumeen balorazioei arreta berezia jarri.	Saregile		Azterketa egin da: bai/ez Proposatutako ekintza positiboak: bai/ez. Zeintzuk.								
A2.7.	Orion erroldatzen diren pertsonen ematen zaien informazioaren artean Saregile eta bertako eskaintza aipatzen direla bermatu. Horrela, Saregilera iristen ez diren emakume-profilen azterketa eginez, eta horiei bideratutako ekintza positiboak aurreikusi.	Harrerako langileak		Erroldatzera datozen pertsonen ematen zaien informazioan txertatu da: bai/ez.								
A2.8.	Saregileko liburutegi feminista elikatzen dela bermatu eta liburutegiarekin koordinazioa landu.	Saregile		Elkarlana eta lotura dago: bai/ez Liburutegi feministan egindako liburu mailegu kopurua.								
A2.9.	Emakumeei Saregilen eskaintzen zaizkien zerbitzuak ematen jarraitu eta, beharra identifikatuko balitz, behar berriei erantzuteko berariazko zerbitzuak sortzea baloratu.	Saregile		Zerbitzuak ematen dira: bai/ez Erabiltzaile-kopurua:								
A3	Oriko emakumeen memoria historikoa berreskuratzeko eta argitara emateko pausoak ematea											
A3.1.	Herriko emakumeen memoria historikoa lantzeko beka bat sortu.	Berdintasun Teknikaria / Saregile		Beka sortu da: bai/ez Beka aurkeztu da: bai/ez Bekara aurkeztutako persona kopurua, sexuaren arabera berezia:								
A3.2.	Herriko errelatoan emakumeen papera ikusarazi bai sortzen diren txostenetan eta baita egun zehatzetako ospakizunetan ere.	Berdintasun Teknikaria / Saregile		Emakumeen papera ikusarazi da sortu diren txostenetan: bai/ez Nola ikusarazi da? Txostenetako atalak. Herriko ospakizunetan emakumeen papera kontuan hartu da: bai/ez Zein ekintza egin dira horretarako?								
A3.3.	Herriko emakume helduen testigantzak biltzeko lanketa bat egin, beraien ahotsak entzunarazteko eta haien ekarpena jasota geratzeko.	Berdintasun Teknikaria / Saregile		Lanketa egin da: bai/ez Parte hartu duten emakume kopurua: Lanketa hori txosten/bideo/bestelako formatuan bildu da: bai/ez Lanketa herri mailan aurkeztu da: bai/ez								
A3.4.	Emakume kirolari erreferenteak ikusarazteko eta balioan jartzeko ekimenak garatu.	Berdintasun Teknikaria / Saregile		Ekimenak egin dira: bai/ez Egindako ekimen-kopurua. Ikusarazitako emakume kirolari kopurua.								

GIZARTE-ANTOLAKETA BIDEZKOA, BERDINTASUNEZKOA ETA JASANGARRIA											
B1	Berdintasunaren inguruan herritarrak eta herriko eragileak sentsibilizatzea										
EKINTZA		ARDURADUNA	AURREKONTUA	ADIERAZLEAK	2026				2027	2028	2029
B1.1.	LGTBI pertsonen bizi dituzten errealitate ezberdinak bistaratzeko eta hausnartzera bultzatzeko gida sortu eta zabaltzea.	Berdintasun teknikaria		Gida bera. Gidaren berri emateko erabili diren kanal eta euskarrien irudiak.							
B1.2.	Emakume erreferenteak herri mailan ikusarazteko, zeharlerrotasunez ekitaldiak antolatu.	Berdintasun teknikaria / Saregile		Antolatutako ekitaldiak. Sortutako euskarriak.							
B2	Orion ikuspegi hezkidetzaile eta pedagogia feministatik jarduteko urratsak ematea hezkuntza arautuan eta ez arautuan										
B2.1.	Diagnostikoko 6 arloetako lehen hirurak lantzen hasi: hezkuntza formala, herrigintza eta kultur transmisioa eta mugimendu feminista eta Saregile.	Berdintasun teknikaria / Aholkularitzak		Diagnostikoko hiru arloak landu dira: Bai/Ez							
B2.2.	Diagnostikoko beste hiru arloak landu.	Berdintasun teknikaria		Diagnostikoko beste hiru arloak landu dira: bai/ez							
B3	Orioko gizonen inplikazioa handitzea zaintza-lanetan, erantzunkidetasunean eta berdintasunezko harremanen eraikuntzan										
B3.1.	Gizonei zuzendutako Parekidetasuna lantzeko saioak antolatzea, gizonak biltzen diren talde, elkarte, klub, mugimendu etab. hauetan parte hartzea gonbidatuz.	Zaintza Mahaia		Saioak antolatu dira: bai/ez Saioetarako bertaratutako gizon kopurua:							
B3.2.	Gizonentzako sentsibilizazio kanpainak martxan jartzea, maskulinitateei, aitatasun arduratsuari eta erantzunkidetasunari buruz aritu daitezen.	Berdintasun Teknikaria		Sentsibilizazio kanpainak egin dira: bai/ez Inpaktuaren berri jaso da: bai ez							

GIZARTE-ANTOLAKETA BIDEZKOA, BERDINTASUNEZKOA ETA JASANGARRIA

B4 Emakumeen autonomia ekonomikoa areagotzea eta horretarako estrategia askotarikoak garatzea											
EKINTZA		ARDURADUNA	AURREKONTUA	ADIERAZLEAK		2026			2027	2028	2029
B4.1.	Herri zaintzailearen sustapenean ahaleginak eta jarduerak egiten dituzten erakunde eta enpresei aitortza egiteko udal-ziurtagiria ezartzea, ziurtagiria lortzeko baldintzak, irizpideak eta sentsibilizazio ekintzak bilduko dituen programa eratuz.	Zaintza Mahaia / Merkataritza teknikaria		Programa eratu da: bai/ez Programa eratzeko egin diren bilerak/lansio kopurua eta bertaratutakoak sexuaren arabera bereizita: Udal-ziurtagiriak eman dira: bai/ez							
B4.2.	Herriko merkatarien % handiena emakume helduak direla jakinda, lanketa egin gazteak ere herrian gera daitezten eta horretarako behar dutena aztertuz, eurekin elkarlanean.	Merkataritza teknikaria		Lanketa egin da: bai/ez Egindako proposamenak kontuan hartu dira: bai/ez Baliabideak eskaini dira: bai/ez							
B4.3.	Herriko merkatarien % handiena emakume helduak direla jakinda, formakuntza eskaini gaitasun teknologikoak eskuratzeko (antolaketa tresnak, marketinerako tresnak...)	Merkataritza teknikaria		Formakuntzak eskaini dira: bai/ez Saio kopurua eta bertaratutako emakume kopurua:							
B5 Pertsonetan oinarritutako zaintza ekosistema berri baterantzko trantsizioa egikaritzeko baldintzak sortzea, Orio herri zaintzailea izan dadin											
B5.1.	Orioko Zaintza Herri akordioa sinatu eta aurkeztu.	Zaintza Mahaia		Sinatu da: bai/ez Aurkeztu da: bai/ez							
B5.2.	Zaintzaren balioa aitortzeko baliabide eta eragileek gidak zabaldu.	Zaintza Mahaia		Gidak egin dira: bai/ez Gidak zabaldu dira: bai/ez Gida zabaldu den euskarri kopuru eta mota.							
B5.3.	Gizonek zaintzaren gaian duten rola aldarrikatzeko eta beraien erantzunkidetasuna sustatzeko ekintzak antolatu: tailerrak, kanpainak...	Zaintza Mahaia		Ekintzak antolatu dira: bai/ez Ekintza bakoitzaren deskribapena eta bertaratutako gizonen kopurua.							
B5.4.	Zaintzaileen eskubide eta betebeharren gida sortu eta zabaldu, online eta fisikoki.	Zaintza Mahaia		Gida sortu da: bai/ez Gida zabaldu da: bai/ez							
B5.5.	Elkarleen artean zaintzaren pedagogia txertatu.	Zaintza Mahaia		Lanketa egin da: bai/ez Jaso den feedbacka:							
B5.6.	Etxez etxeko laguntza zerbitzuko langileen lan baldintzak hobetu.	Gizarte Zerbitzuak		Lan baldintzak hobetu dira: bai/ez Zertan hobetu diren datuetara eraman.							
B5.7.	Zaintzaileen arteko guneak sortu: Zaintzaileen eskola feminista	Zaintza Mahaia		Eskola feminista sortu da: bai/ez							
B5.8.	Denontzat industria guneak Mankomunitateko proiektuaren lanketa.	Hirigintza		Lanketarako egin diren bilerak. Lanketaren azken emaitza bilduen duen txostena.							

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

I1	Bizitza askeak plazer estrategiaren garapenean urratsak ematea; elkarren zaintzan eta errespetuan oinarrituko den herri eraikitzeak, indarkeria guztien aurka eginez										
	EKINTZA	ARDURADUNA	AURREKONTUA	ADIERAZLEAK	2026				2027	2028	2029
II.1.	Lehen arretan daudenei formakuntza espezifikoa eskaini indarkeria matxistaren inguruan: Udaltzaingoa, Gizarte saileko teknikariak, Saregile eta Berdintasun teknikaria.	Berdintasun Teknikaria / Gizarte langilea / Saregile		Formakuntza saio kopurua eta bertaratutakoen %ak sexuaren arabera banatuta.							
II.2.	Erakunde arteko koordinazioan urratsak ematea, besteak beste aldagai hauetan: arduren eta deribazio-zirkuituen argitasuna; emakumeen irisgarritasuna; datuen babesa eta konfidentzialtasuna; bigarren mailako biktimizazioa saihestea; kasuen koordinazioaren kalitatea; protokoloaren aldizkako ebaluazioa.	Berdintasun Teknikaria / Gizarte langilea / Saregile		Txostena landu da: bai/ez Sistematizazio lantzeko eman diren urratsak biltzen dituen dokumentua. Sistematizaziorako egin dire bilera kopurua eta bertaratu direnen %ak sexuaren arabera banatuta. Euskal Poliziaren arteko koordinazioa hobetzeko bilera kopurua eta bertaratu direnen %ak sexuaren arabera banatuta + landutako dokumentuak.							
II.3.	Indarkeria matxistarik gabeko jai eta kultur espazioak lortzeko bidean aurrera egiteko udalerrri prozesua martxan jartzea.	Berdintasun Teknikaria / Kultura Saila		Prozesua martxan jarri da: bai/ez Bilera kopurua eta bertaratutakoen %ak sexuaren arabera banatuta.							
II.4.	Erreparazio feminista eta memoriaren eraikuntza: erreparazioaren dimentsio indibiduala, soziala, sinbolikoa eta komunitarioan esku-hartzean sakontzea.	Berdintasun Teknikaria	9.614,14 €	Proposamena landu da: bai/ez Eragileen parte hartzea: zenbat eragile/zenbatetan/non							
II.5.	Herriko kirol elkarteekin ongizatea sustatzeko proiektuak sortu eta garatu.	Berdintasun Teknikaria / Kirol Teknikaria		Kirol elkarte kopurua. Landu diren proiektu kopurua.							
I2	Hirigintza inklusiboan sakontzea, herritar guztientzat herri bizigarri bat lortzeko										
I2.1.	Herriko puntu beltzen lanketa eguneratua egiten jarraitu.	Bulego Teknikoa / Berdintasun Teknikaria		Prozesuko bilera eta saio kopurua; bertaratutakoen %ak sexuaren arabera banatuta. - Saiotako aktak eta argazkiak. - Prozesuaren memoria.							
I2.2.	Espazioen erabileraren inguruko azterketa/ hausnarketa egin. Haur eta nerabeak, zehazki, kontuan hartu.	Bulego Teknikaria / Berdintasun Teknikaria		Azterketa bera biltzen duen dokumentua. Azterketa egiteko landu diren bilera/lansio kopurua eta bertaratutakoak sexuaren arabera banatuta.							

2.5. Lan ildo bakoitzeko helburu eta ekintza kopuruak, guztira:

	Lan-ildoak	Helburuak	Ekintzak
G	Gobernu ona	7	28
A	Emakumeen ahalduntzea	3	16
B	Gizarte-antolaketa bidezkoa, berdintasunezkoa eta jasangarria	5	17
I	Emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzak	2	7
	Guztira:	17	68

Kudeaketa
egiturak

3.1. Sailen arteko egitura politikoa:

Parte hartzaileak:

Udaleko sail guztien ardura politikoa duten, eta erabaki estrategikoak hartzeko gaitasuna duten pertsonak osatuko dute. Alderdi politiko guztietako ordezkariak hartuko dute parte.

Funtzioak:

Alde batetik, udal mailan aurreikusten diren berdintasun politiken gaineko erabakiak koordinatuko dituzte, eta bestetik, berdintasunarekiko inplikazio politikoa adierazi eta sustatuko dute, informazio egokia erraztuz.

Urteko bilera kopurua: 1

Data: azaroan

3.2. Sailen arteko egitura teknikoa edo Berdintasun Batzordea:

Parte hartzaileak:

Udaleko sail ezberdinetako teknikariek eta ordezkari politikoek osatzen dute talde hau.

Funtzioak:

Alde batetik, sail bakoitzerako zehaztu diren helburu eta neurrien garapena gauzatuko dute eta euren arteko koordinazioa bermatuko dute, zeharkakotasuna lantzeko bidean. Bestetik, urteko eta hurrengo urteetarako helburu eta neurrien gainean hobekuntzak eta aldaketak proposatuko dituzte, eta urtez urte ekintza guztien balorazioa egiten joango dira, kronograma orokorra eguneratuz elkarrekin.

Urteko bilera kopurua: 2

Data: urtarrila eta azaroa

3.3. Berdintasunerako Talde motorea:

Parte hartzaileak:

III. Berdintasun Plana garatzeko talde motorea izango da Berdintasun teknikariarekin batera, plana exekutatzeaz arduratuko dena. Honako hauek osatuko dute:

- Berdintasun teknikaria
- Ongizateko teknikaria
- Administrazio Orokorreko teknikaria
- Saregileko kideak

Funtzioak:

Alde batetik, Talde motorearen bilerak egingo dituzte, urteko plangintza garatuz eta koordinatu behar dituzten beste organoen jarraipena eginez (Berdintasun Batzordea, Emakumeen Mahaia, Hezkidetza Mahaia) eta Berdintasun planaren jarraipeneko txostenak osatuko dituzte urtero.

Bestetik, Berdintasun arloko diru laguntzak eskatu eta kudeatuko dituzte.

Urteko bilera kopurua: 4 (gutxienez)

Data: hiruhiletik behin

3.4. Indarkeria matxistaren aurka lanean dabiltzan erakunde eta udal sailen arteko koordinazio organoa:

Parte hartzaileak:

Indarkeria matxistaren aurka lanean dabiltzan erakunde eta udal sailek osatzen dute gaur gaurkoz: anbulategiko ordezkaria, Udaltzainburua, Berdintasun teknikaria, Udaleko Gizarte saileko ordezkaria, Saregileko ordezkariak, Ertzaintzako ordezkaria eta Ikastetxeetako ordezkariak.

Funtzioak:

Alde batetik, indarkeria matxista kasuen aurrean elkarrekin nola koordinatuko direnaren jarraibide-protokoloa osatu eta jarraibide protokolo hori erakunde sinatzaile guztien barnean komunikatu dute (dagozkien formakuntzak eskainiz eskuhartze zuzena egiten duten langile eta arduradunei). Eta bestetik, urratsak eman dituzte indarkeriari aurre egiten dieten emakumeen arreta hobetzeko, zerbitzuak optimizatzeko eta erreparazio prozesuak sustatzeko.

Urteko bilera kopurua: 2.

3.5. Emakumeen Mahaia:

Parte hartzaileak:

Herriko emakume taldeetako eta talde feministetako ordezkariak osatzen dute.

Funtzioak:

Alde batetik, udal mailan garatzen diren berdintasun politiken gaineko balorazioak egiten dituzte eta horiek hobetzeko proposamenak landu. Bestetik, herri mailan ikusten dituzten ahulguneak azaleratzen dituzte eta urteko sentsibilizazio eta ekintza-plana diseinatu eta garatuko dute elkar-lanean.

Urteko bilera kopurua: hilean behin.

3.6. Hezkidetza Mahaia:

Parte hartzaileak:

Herriko eskoletako ordezkariak, gazteleku eta ludekako ordezkariak, Berdintasun eta Hezkuntza sailak, Kirola eta Gazteria sailak, Saregilek eta Gizarte sailak eta ordezkari politikoak osatu dute.

Funtzioak:

Martxan dagoen Hezkidetza planaren jarraipena egiten ari dira, dagokion balorazio-txostena osatuz urte amaieran. Urteko egun seinalatuetakoa koordinazioa eta lanketa partekatuak sustatzen dira.

Bilera kopurua: hilean behin.

3.7. Zaintza Mahaia:

Parte hartzaileak:

Gizarte zerbitzuak, berdintasun eta hezkuntza teknikaria, ordezkari politikoak, aholkularitzak.

Funtzioak:

Zaintza-eremu pribatutik espazio publikora ateratzeko herri-prozesuan abian da. Pertsona ardatz izango duen eredu komunitario batez ari gara, non zaintza behar duten pertsonentzako aukerak artikulatuko diren, nor bere bizitza-proiektua ahalik eta baldintza onenetan garatzeko, komunitatearen babes eta laguntzarekin. Horretarako, prozesua koordinatzeko Zaintza Mahaia dago.

Javvraipen sistema

Berdintasun plan honen arrakasta bermatzeko, ezinbestekoa da etengabeko jarraipena egitea. Urtero balorazio bat egingo da ordurarteko helburu eta ekintzen betetze-maila neurtzeko, eta baita helburu eta ekintza horien bitartez lortutako eragina neurtzeko ere. Plan honen amaieran, 2029an, emaitzen ebaluazio txosten osoa landuko da.

4.1. Jarraipenerako tresnak:

Jarraipena egiteko ekintza bakoitzak **adierazle multzo bat** dauka bere fitxan: batzuk kuantitatiboak dira eta beste batzuk kualitatiboak. Adierazle horiek erantzunez ekintza bakoitzaren jarraipena osatuko du arduradunak.

Ekintza bakoitzaren jarraipena egiteko hurrengo orrian aurkezten dugun **balorazio-fitxa** beteko da.

Bertan, **ekintzaren kokatze-datuen** ondoren (zein Berdintasun ardatzen barruan dagoen; Zein udal saili dagokion balorazioa; Zein helburu orokorren barruan dagoen; Ekintzaren izen zehatza; Ardura-duna/k; data ala iraupena).

Behin datu horiek jarrita, **baloraziorako irizpide kuantitatiboekin** jarraitu behar da. Horretarako, ekintzaren betetze-maila adierazi behar da (osoki eginda, zati bat eginda -faseak baldin baditu; ala iraupen luzeko ekintza bada-, amaitu gabe eta ezer ez dela egin parametroen bitartez), ekintzaren izaera (aurtengoa ala urterokoa den), aurrekontua (aurreikusitakoa eta erreala) eta eskaintako denbora (aurreikusitakoa eta erreala).

Balorazio kualitatiborako, berriz, azken atalak daude: ekintzaren garapenean egindakoaren azalpena jarri behar da; egin ez diren zati ala zereginen azalpena; bidean agertutako zailtasunak eta zailtasun horiei emandako irtenbideak zein izan diren; ekintza-fitxan ezarri ziren adierazleak ekarri behar dira balorazio-fitxara, eta ondoan, hauen emaitzak jarri behar dira; eta azkenik, norberak ibilbide honetan izandako esperientzien arabera hurrengorako ala beste ekintzetarako proposatzen dituen hobekuntzak ala ideia berriak.

4.2. Jarraipen-bilerak:

Urteko ekintza guztien fitxak urteko azken bileran landuko dira **Berdintasun Batzordean**. Berdintasun teknikariak aurkeztuko ditu aurrez sail bakoitzarekin egindako balorazioak (kronograman ekintza bakoitzaren egoera betetze-maila berdez, laranjez ala gorritz adieraziko da).

Berdintasun teknikariak sail desberdinekin egingo dituen bileren bidez, ekintzak exekutatzean agertu diren zailtasunak landuko dituzte eta ematen diren konponbideak gainontzekoekin partekatuko dira urteko azken bilera honetan. Gainera, posible denetan, lankidetzat sustatuko da.

Ondoren, bertan agertutako balorazio eta proposamenak **Sailen arteko egitura politikora** eramango dira. Eta bertan, planaren jarraipena egiteaz gain, hurrengo urteko helburu estrategikoen aurrekontuen onarpena egingo da.

Urte bakoitzaren amaieran zehaztuta utziko dira hurrengo urteko bileren datak.

4.3. Urteko plan operatiboak:

Plana indarrean dagoen urte bakoitzean, urteko plan operatiboa edo urteko programazioa egingo da. Bertan, urte horretan landuko diren neurriak, ekintzak eta arduradunak zehaztuko dira. Plan operatibo hauek **Berdintasun Batzordearen lehen bileran** osatuko dira (urte bakoitzeko urtarrilean, hain zuzen ere).

Berdintasun ardatza					Saila		
Helburua							
Ekintza							
Arduraduna					Data ala iraupena	Aurreikuspena:	
						Erreala:	
Ekintzaren betetze-maila	Eginda	Zati bat	Amaitu gabe	Ezer ez	Ekintzaren izaera	Aurtengoa	Urterokoa
Egindakoaren azalpena					Aurrekontua	Aurreikuspena:	
						Erreala:	
Egin gabekoaren azalpena					Eskainitako denbora	Aurreikuspena:	
						Erreala:	
	Agertutako zailtasunak:				Emandako irtenbideak:		
Zailtasunak eta irtenbideak							
	Aurreikusitako adierazleak:				Adierazleen araberako emaitzak:		
Adierazleak eta emaitzak							
Hobetzeko proposamenak							

4.4. Jarraipen-egutegia:

Organoa	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
Talde motorea												
Berdintasun batzordea												
Sailen arteko egitura politikoa												
Indarkeria matxistaren aurka lanean dabilen erakunde eta udal sailen arteko koordinazio organoa												
Emakumeen Mahaia												
Hezkidetza Mahaia												
Zaintza Mahaia												